

IRITZIAK

Gure aldizkari au ez da gaizki artua izan. Ez orixe. Zenbaiteri bialdu nizkien, laister ir- tetzeko zala-ta, lerrotxo batzuek. Ia danak erantzun didate, eta danak txalojoka idatzi ta erantzun ere. Ona beuren sailtxo bat. Es- kerrik asko, biotz-beroz, idatzi didazutenoi.

Donosti'tik, *Egaña'tar Gotzon'ek*: «Zurea garaiz jaso nizun. Bejondeizula! Pozik irakurri nuen, eta pozik irakurri zuten nere lagunak ere. Inork elesari eta itz goralgarririk merezi ba'du, zuk merezi dezu. bai noski! Ba-dezu kixkalmena zure inguruak gori-gori jartzeko eta Olertia jasotzeko. Zure aldizkaria noiz jaso irrikaz nagokizu. Lenbailen izango al da! Aurretik artu itzazu nere zorion-agurrik miñenak.

Eta beste zertxoa. Dagoaneko arpidedunen artean jarri nazakezu, eta arpide berriak lortu nai dizkizudan ezkerro, bial izkidazu, arren, amarren bat ieki.

Agur. Nere esku-zartadarik beroena, eta agindu zure adiskide eta biozkide oni».

Añorga'tik *Lekuona'tar Juan Mari'k*: «Adiskide gogozko: Zuk igorri eskutitza artu nubela egun batzuek ba-dira. Egi-egiaz esaten dizut ordu onean datorrela zure OLERTI izeneko aldizkari ori. Diozun utsunea neronek ere nabaritutakoa da, askotan egon bai naiz nere lantxoak nun argitaratu! Eta nere eskuetatik irtendakoak gauz gutxi izanda ere, ezkutuan egon litezkenak alegia, beste euskal idazleen lanak irakurri-gose egon naiz, nun gose ori berdindu ez dakitela. Orretaz gañera, atzen aldi onetan, olerki saillean lan guxi datozen eta txepelagoak. Gaitz onen sustraia sakona izango da, noski. Ez noa

orain iritzi bat ematera. Baiñan aldizkari onek laguntza ederra eman dezaioke euskal literaturari. Bebiltz ondo euskera gaurkora-tzeko gai guztiak jotzen dituzten aldizkariak. Gu literatura arruntarez zerbi zari gera. Be-tor ordu onean OLERTI izeneko gure lur-bazterra!»

Billaro'tik, *Muxika'tar Luis Mari'k*: «Ba-dira makiña bat egun artu nuela zure esku-titza, betiko eran suspergarria. Baiñan, bitar-tean lantxo ta eginbear asko eduki ditut, eta ezin eman eskua zureari.

Ta lenengoz nik, olerkari bezela, milla es-ker bero-bero zure idea agurgarri orregatik. Begia zorrotza daukazu ta ekin iturria ta au-sartasuna oraindik areago. Benetan txaloga-rria zure azkeneko asmo au. Euskal olerkari ta bertsolariak etzeukaten, noski, ezer bere-zirik beuren jardun-aldietarako. Makiña bat bertsolari dira errietan iñoren bultzadarik gabe beren bertsolaritasuna ezkututzen ari zaienak. Neronek daukat osaba bat bertsole-ria; len idazten zuan aldizkari baten, baiño gero oztu egin nunbait. Azkenean nik eragin diot eta bialdu dit bertso sail bat «Zeruko Argia»,n argitaratzeko. Ekingo diot berriro zure aldizkari asi-berri ortara bialtzeko ere.

Len esaten nizuna: asko poztu naiz OLER-TI aldizkariaren-gatik. Euskalerrian, nere ustez, olerkaritasuna ta bertsolaritasuna eus-keraren eusgarri jatorrak dira. Ta gainera, au oso bide egokia da gure euskera oni bar-neko apaintasunak ager-arazteko, bera lan-tzeko ta egunen batean ere literatur-izkun-tzen maillara iristeko. Ea, noiz jasotzen du-gun izkuntza kataluindar ta probentzatarren erara!

Gaurkoz oso gutxi bidaltzen dizut. Bi oler-ki bakarrik. Ba-dauzkat beraz beste batzuk,

baiño oraindik zuzendu ta eratu gabeak. Uz-tail aldera-edo, bidalduko dizut sail aundia-go bat.

Lortu det Rilke'ren olerki liburu jator bat. Ez dauzka bere olerki guztiak, banaka ba-tzuk baiño. Oso zorotua nago aren olermena-ekin. Esaten zenidanez, euskerari egokia zaio bere xoiltasunagatik. Euskal idazleok, nik uste, erdal literatura geiago jan bear gen-duce gure euskerari erasteko ango balio ta apaintasunak. Olerkari aundi oiek, euskeraz idazteko ere, beste euskal olerkari ta idazle askok baiño on bikaiñagoa, neri beintzat, egi-ten didate. Ta besterik ez».

Santurtze'tik, *Etxebarria'tar Juan Angel'-ek*: «Pozarren natorkizu erantzuna emotera. Euskal aldizkari asko daukaguz; baiña, bear doguzan guztiak euki artean, jo ta ke ekin bear geunke lanean. Ori dala-ta, ondo baiño obeto da OLERTI izeneko ori ateratea. Onen antzera beste asko be sortuko al dira, aurre-rantzean! Bizi dedilla OLERTI, luzaro ta oparo, euskeraren eta euskal kulturaren one-rako».

Donosti'tik, *Garmendia'tar Jon'ek*: «Nere ondar-aletxoaz lagundu nairik, ementxe di-joakizu zure idazki atsegiñaren bidez eskatu didazun idaz-lantxo. Eztakit argitalgarri izando dan. Zeuk ikusiko. Ea, laster-laster, OLERTI irakurtzeko zoria izaten degun. Etzera makala, arrano ori! Zorionak!!»

Zeanuri'tik, *Manterola'tar Gabirel'ek*: «Ondo deritxot OLERTI argitaltzeko dozun asmu orri, makulluekaz dabillen gure euske-ra gaxoari laguntzeko egiten dan guztia, nai-ko ez da izango-ta. Emen bialtzen dautzut zerbait, argitalgai ba'deritxazu. Zuk diñozu-nez, «labur» ez da, eta «goxo» bez gauza an-dirik. Ba-dakizu, ni ez nazala, lengo egun

baten «La Gaceta del Norte»'n Onieva'k aita-
tzen eban «La Poesía de última hora»koen
artekoa; baiña lengo erara ta zerbait errez
aituteko «bertso» batzuk egiteko gertu na-
go. Agur, eta otoitz».

Zarautz'tik, *Jauregi'tar K.*:

«Ba-dira urte batzuk olerkirik egin ez du-
dala ta euskeraz idatzi ere gabe urteak era-
man ditut. Oneratu-ezkeroztik, herriro idaz-
ten asi natzaizu. Olerkiak baiño ipui luze
edo eleberritxoak idazteari eman diot, ira-
kurleak irabazteko bide egokiagoa bai-deri-
tzat. Izan liteke noizpait olerkitxoren bat edo
beste zuri bidaltzea. Leengo bat edo beste or-
izatea gerta liteke, Urrestilla'tik nik bidal-
duta, EUN OLERKI ONENAK liburua osa-
tzeko ziñala-ta».

Bilbo'tik, *G. Areti'k*: «Gaur eguerdian to-
patu dot etxean berorren karte, eta pozez
heterik geratu naz. Orain arte ez dot beror-
ren bearra begi onakaz ikusi: baiña asmo-
au kontsideratu ezker, biotzetikan deadar
azkar batek urtetan deust: Biba Aita Onain-
dia! Bai, ondo ikusten dot berorren asmoa
eta ene laguntasunik aundiena eta iraunko-
rra eskinduten deust, amai on eta zorion-
tsu batera eroateko. Nire lanak, nire poesia-
rik sentiduenak, eta baita euskal eta extran-
jeriko poesiaren ganeko irizpideak, kritikak
eta estudioak bialduko deustudaz. Entsegida
parauko naz bearrean: nire poesietatik ba-
tzuk aukeratuko ditudaz; Baudelaire, Rilke,
Whitman, T. S. Eliot eta Salinas estudiantuko
ditut. Berorrek publiketan badeustaz, zeru-
raño bear egingo dot. Itzulpenak here egingo
ditut».

Donosti'tik, *Antonio Valverde'k*: «Olerka-
rientzako aldizkari bat laister sortuko dala

jakiteak poztu egin nau oso. Bejondeizula!,
eta OLERTI luzaro bizi dedilla! Ortan txo-
ko bat eskeiñi didazu. Milla esker. Ni enaiz
olerkari, baiñan pozik lantxo bat edo beste
bialiko dizut noizpeinka, itzlauz noski».

Ondarroa'tik, *A. Zubikarai'k*: «Eztakit ni-
re lan onek olerkirik ba ete daben. Dueñas'-
ko kanpai jotzailleak, bere zeregiñean, oler-
ki samurra darabillena bai. Bera kanpai jo-
ten ikusieran, barrutik urten yataz itz neur-
mar artu nuan zurea. Eta geroz, makalaldi
tuok».

Bilbo'tik, *Erkiaga'tar Eusebi'k*: «Belu xa-
ta lan ugari izan ditut. Tentsiño makalez dut
odola, eta ia orain jasoten dudan. Udaberri-
ontan, tamalaren aundiz, ez dot bertsuketan
jardun. Itxaropenik, oster, ez dagigun gal.
Zure asmo ederrari, txaloak txalo».

Ispaster'tik, *Burgaiñitzaintxu'tar Xabi'k*:
«OLERTI ta dituzun asmuak, asko poztu na-
be. Aldizkingi ori argitalduaz euzkeriaren al-
de egin leikien lanik onenetarikua dala, as-
kok esan deuste. Orretarako zaletasuna ba-
dala erri ze ta arruntarien artian, batez be
bertsolarien ollar-auskak ikusteko ta irakur-
teko. Bertsolari zarren gora-bera ta «bertso»
autuak argitaratuaz bakarrik, urte askota-
rako lana dozula, batez be eresi-laguna ezar-
ten ha'dozu, gaurkuak be bertsolaritzara ma-
kurtuko ba dira».

Areatza'tik, *Sardui'tar Deunoro'k*: «Itz gi-
txi, baiña bearrezkoak idaztera natorkizu.
Artu neban zure idazki ezin jatorragoa. Ber-
tan irakurri neban zure uste ta guraria, ezin
obea irudituten zait. Egiz, geuk, edo obeto

esanda, bertsolari ta olerkariok, bearrezko genduan olako aldizkingi berezi bat. Nire ustez, oraingo onek, danon gurariak beteo dituzte. Zorionak jaio-barriari, ta ainbat lasterren gizondua izango al da. Egiz txalotzen zaitut.

Iruñatik, Jose Agerre'k: «Dezun usmoz begiko zait, baita txalogarri ta sustagarri. Ardiesteko opa dizut nai dezuna. Jarrai, ba, aurrera, naiz-eta norbaitzuk irten bidera, aldiok olertirako gai ez direlako aitzakiaz. Olermenaren bulkoain ziria aditzen degunok, esan ok gora-bera, ez gera ketxu. Ezta azolminik ez digu ekarri bear, baldin eta karrask egiten ba'dute besteen aleginek. Besteeri gertatzen dena, bearrez ere, guri ez digu gertatu behar. Egin zagun geonen ahala ta bearkizuna. Txanda ba'da alabeharrezko, betor ba orduan, ezinbestez ta azkartara, amor egin-hebarra edo kur-unea.

Olertia dela bide, gozogarririk topatzen dira bizitzan. Euskerari buruz ere ez da etsi behar. Emagun ziur aleginzaro barri untan aldeka onurakorrak ukanen ditukegula baita, alarik ere. Bederik bertsolari edo koblakari buruz. Ertilari erritar ok beren aise utzi-axeak ditugu aspaldion. Ain zuzen ere solasa ibili degu aremein zelan esna bazterretan bertsolari gaztek, degula nola degun bertsolaritza erriaren goreneko aldina. Orra, aurki sortuko zaigu, bertsolari-kariotan, jorieneko mena. Aita Zabala'ren idaztia. Erran dezakegu aro berri ta naroa degula urran. Ta zein eta zenbat menak ez ditugu bertotik eskuratzeko gai!... Uni soai, eskainkor agertzen zaigu geroa. Betor, ba, zure aldizkari begikoan.

Ondarribi'tik, Fernando Artola, *Bordarri'k*: «Zeure-zeurea jaso nuen bere garaian. Poz aundia eman zidala esan bearrik ez dut. Ori da jatortasuna, ori da asmo ona, ori da bene-benetan... «txurian», erdi-erdian, jostzea. Bejoindizula! Ba-dakizu, ni alper xamarra naiz, eleketa bide, lagunari idatzitzeko; ikusi bestela zenbat egun bear izan ditudan zureari erantzueko. Baiña, berandu bedere, emen natorkizu, zuri arnas eman naien. Ni olerkari ustela nazu, ta ezin gauza aundirik igorri; ez dakiana askotan ausarta izan oi da; ni bat... izena izana baiño aundiagoa detana naiz. Zuk ongi dakizu. Onekin batera olerkitxo bat igortzen dizut; ondo ba'derizkiozu, argitaratu; txarra bada... *Olerti, Olerti, Olerti!* Olerkariok ere zerbait ba-gerala agertuko dezun aldizkingia, ar zazu nere ongi-etorria. Milla esker, nik ere zuri».

«LORAMENDI» FR. JOAKIN BEDOÑA-KOAREN GORATZARREZ EUSKALTZANDIAK ANTOLATZEN DUEN LITERATURA-SARIKETA

1. Sariak, urrengo aipatuko diran gaiez egiñikako lanentzat izando dira:

I. *Bertsotan*. Nai dan bezalako luzera eta gaia duen poesiarentzat. Leenbiziko saria, bi milla peseta; bigarrena, milla.

II. *Itz lauz*. Bere denboran ikusiaz eta iritziak emanaz «Loramendi»-ren poesiaz egiñikako lanentzat. Lanen luzera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa izango da. Sariak, leenbizikoa